

## Etorkizuneko aplikazioak

**Kazetaria:** Arratsalde on! Atzoko saioan, galdera hau egin genien telefonoa esku artean izaten duten gazteei: Zein aplikazioren falta sumatzen duzue? Zein nahiko zenukete asmatzea etorkizunean? Mezu pila bat jaso ditugu. Entzun, entzun!

**Entzulea 1:** Arratsalde on. Oihan naiz. Nik ondoko pertsonen kolonia zein den esaten duen aplikazioa asmatzea nahiko nuke; askotan aditzen ditut usain goxoak, eta ez naiz galdetzeraz ausartzen!

**Entzulea 2:** Kaixo, Sara naiz, eta oso despistatua naiz. Horregatik nahiko nuke galtzen diren gauzak aurkitzeko aplikazio bat asmatzea, batez ere, etxeko giltzak aurkitzen dituenena. Sekulakoa izango litzateke!

**Kazetaria:** Tira, azkeneko hori ez dago batere gaizki. Ni ere erotuta ibiltzen naiz giltzak eta horrelako gauza txikiak bilatzen!! Ea zer dioten beste hauek:

**Entzulea 3:** Arratsalde on! Aitor naiz eta ezin ditut gezurtiak jasan. Beraz, gezurrak detektatzen dituen aplikazioa asmatzea nahiko nuke. Gezur bat entzuten duenean, mugikorrek "piiii" egitea gustatuko litzaidake, eta gezurra esan duenak egia kontatu beharko du!

**Entzulea 4:** Hepa! Aitziber naiz. Ni beti ibiltzen naiz eskolara ez joateko aitzakien bila, eta uste dut bukatu egin zaizkidala denak! Horregatik, nik aitzakiak asmatzen dituen aplikazio bat nahiko nuke: aitzakia onak izatea gustatuko litzaidake irakasleei edo gurasoei esateko!

**Kazetaria:** Kar-kar, zer ona! Baina gezurrak detektatzeko aplikazioa baldin badago, aitzakiak ez du balioko, Aitziber! Mila esker denoi!